



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko martxoaren 8a

29. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ETaren estortsioa eta mehatxuak pairatu dituzten nafar enpresaburuen kasua iker dezan, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio haientzako omenaldi-ekitaldi bat antola dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15 autobidearen doakotasunari buruz onetsitako erabakiak bete ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak, zeinetan Espainiako Estatuak kondenatzen baitu tortura-salaketak ez ikertzeagatik. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Sustapen Ministerioa premiatzen dira abian jar ditzaten N-121-C errepidearen Nafarroako Erriberako tartean sortutako egoera minimizatzen lagunduko duten neurri eta jarduketa zuzentzaileak. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da iraupen luzeko langabetuentzako laguntzak urte anitzekoak izan daitezen. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (5. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Tuteran mendebaldeko Gayarre osasun etxean eta osasun mentaleko zentroan saguak egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako sare publikoaren kalitatearen aldeko ituna berritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nafarroako eskola mapan egingen diren aldaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, ospitaleetako biribilgunetik Nafarroako Ospitaleko sarrera nagusira bitarteko seinaleztapen horizontalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako 2018rako aurrekontuen proiektua Nafarroako Parlamentuan urriaren 31rainoko epea baino lehen ez erregistratzeko zioei eta arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, kontratazio publikoaren protokoloiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

- Galdera, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen Euskarabideak emandako diru-laguntzei buruzko daturik ez egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Sarrigurengo Joakin Lizarraga ikastexe publikoko kanpo-errotulazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ospitaleetan edo osasun etxeetan medikuaren aginduz ama-esnearen analisiak edo kultiboak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Artikako ikasleak Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan eskolatzeko erreferentzia-ikastetxeak ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, zenbait delitu direla-eta atxilotutako pertsonen jasotzen zituzten gizarte-laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxa Fundazioak euskarari ematen dion erabilera dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ETAREN estortsioa eta mehatxuak pairatu dituzten nafar enpresaburuen kasua iker dezan, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio haiantzako omenaldi-ekitaldi bat antola dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da ETAREN estortsioa eta mehatxuak pairatu dituzten nafar enpresaburuen kasua iker dezan, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen zaio haiantzako omenaldi-ekitaldi bat antola dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratadain agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bere arbuioa adierazten du ETAK eta Komando Autonomo Antikapalistek nafar enpresaburuen eta profesionalen aurka egindako atentatuak, mehatxuak eta estortsioak direla-eta.

2. Espainiako Gobernua premiatzen du judizialki iker ditzan estortsioen egileak, bai eta

“zerga iraultzailea” oker deitutakoaren ordainketa bideratzen lagundu zuten laguntzaile-sareak ere.

3. Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako unibertsitateekin elkarlanean dibulgazio-lan bat eta erakusketa bat egin ditzan, zeinetan, biktimen anonimotasuna zainduz, ikusaraziko baitira estortsioaren zifrak, mekanismoak, konplizitateak eta giza inpaktua nahiz inpaktu ekonomikoa.

4. Omenaldi- eta erreparazio-ekitaldi bat antolatzea onesten du, ETAK eta Komando Autonomo Antikapalistek egindako atentatuak, mehatxuak eta estortsioak pairatu zituzten enpresaburu guztientzat. Halaber, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin lankidetzan, plaka bat jarriko du haren egoitzaren fatxadan, estortsioa pairatu duten enpresaburuen eta profesionalen omenez”.

Iruñean, 2018ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15 autobidearen doakotasunari buruz onetsitako erabakiak bete ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15 autobidearen doakotasunari buruz onetsitako erabakiak bete ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bete egin ditzan Parla-

mentuak 2016ko apirilaren 7an eta 2017ko urriaren 6an onetsitako erabakiak, AP-15 autobidea guztiz doan ezar dezan premiatzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean azterlan bat presta dezan, AP-15 autobidearen doakotasuna ezartzeko izapidea hasteko behar diren eskakizunen analisiaren eta kostuen gainekoa”.

Iruñean, 2018ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak, zeinetan Espainiako Estatuak kondenatzen baitu tortura-salaketak ez ikertzeagatik.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak, zeinetan Espainiako Estatuak kondenatzen baitu tortura-salaketak ez ikertzeagatik”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaiak, zeinetan Espainiako estatua kondenatzen baitu tortura-salaketak ez ikertzeagatik; bereziki, azken epaia, iragan otsailaren 13an ezagutu zena, zeinaren bidez egiaztatzen baita “tratu anker eta apalesgarria” eman zitzaizela Igor Portu eta Mattin Sarasolari, inkomunikazio-araubidean atxilotuta egon ziren bitartean. Horrenbestez, Espainiako Gobernua premiatzen dugu onar dezan tortura eta tratu txarrak baliatu izana, eta hartu beharreko neurriak har ditzan torturaren biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emate-

ko, eta torturarik berriz ez gertatzeko beharrezkoak diren mekanismoak ezar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak salatu egiten ditu gisa horretako gertakariak argitzeari begira Estatu-ko zenbait arlotatik jarri diren eta jartzen jarraitzen diren eragozpenak, helburu dutenak Estatu-ko Segurtasun Kidego eta Indarren torturen eta tratu txarren errealitatea ezkutatzen jarraitzea. Halatan, errefusatu egiten du nafar herritarren aurkako tortura kasuak dokumentatze aldera unibertsitateko ikerkuntza-zentroei laguntzak emateko deialdien aurka Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak aurkeztutako errekurtoa.

3. Nafarroako Parlamentuak dio nafar herritarrek pairatutako tortura-kasu guztiak dokumentatu eta argitara ekarri beharra dagoela, bere elkartasuna adierazten die, eta pertsona horiei aitortu egiten die egia, justizia eta erreparazioa jasotzeko eskubidea. Hortaz, Nafarroako Gobernua premiatzen du helburu hori lortzeko lanean jarrai dezan”.

Iruñean, 2018ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernu eta Sustapen Ministerioa premiatzen dira abian jar ditzaten N-121-C errepidearen Nafarroako Erriberako tartean sortutako egoera minimizatzen lagunduko duten neurri eta jarduketa zuzentzaileak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2018ko martxoaren 1ean egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernu eta Sustapen Ministerioa premiatzen dira abian jar ditzaten N-121-C errepidearen Nafarroako Erriberako tartean sortutako egoera minimizatzen lagunduko duten neurri eta jarduketa zuzentzaileak".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu eta Sustapen Ministerioa premiatzen ditu

urgentziaz eta ahal bezain azkar abian jar ditzaten N-121-C errepidearen Nafarroako Erriberako tartean sortutako egoera minimizatzen lagunduko duten neurri eta jarduketa zuzentzaileak, N-232 errepidearen Errioxako tartean ibilgailuei pasatzea debekatu izanaren ondorioz.

Konponbide horiek ukitutako udalekin planteatu eta adostu beharko dira, eta ez diete kalterik egin beharko eremu horretako jarduera ekonomikoari eta enpresa-jarduerari".

Iruñean, 2018ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu premiatzen da iraupen luze-ko langabetuentzako laguntzak urte anitzekoak izan daitezen.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2018ko martxoaren 1ean egindako bilkuran, ezetsi egin du iraupen luze-ko langabetuentzako laguntzak urte anitzekoak izan daitezen Nafarroako Gobernu premiatzen duen mozioa, zeina Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamenta-

rioak aurkeztu baitzuen eta 2018ko otsailaren 23ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2018ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tuter Mendebaldeko Gayarre Osasun Etxean eta Osasun Mentaleko Zentroan Saguak Egoteari Buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuter Mendebaldeko Gayarre Osasun Etxean eta Osasun Mentaleko Zentroan saguak egoteari buruzkoa. Galdera 2017ko azaroaren 3ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu du informazioa eskatze aldera "Tuter Mendebaldeko "Gayarre" Osasun Etxean eta Osasun Mentaleko Zentroan saguak egoteari buruz" (9-17/PES-00230). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak igortzen dion informazioa:

Osasun Departamentuaren ustez, osasun publikoko arazo bat al da saguak egotea Tuter Mendebaldeko "Gayarre" Osasun Etxean eta Osasun Mentaleko Zentroan?

Saguak edo beste organismo kaltegarri batzuk egotea soilik jo daiteke osasun publikoko arazotzat izurriteen presentzia, oro har, jarraitua denean, haren intentsitatea handia denean eta hura kontrolatze aldera esku hartzeko neurri eraginkorrak aplikatzen ez direnean.

Kasu honetan, galderan aipatzen den presentzia noizbehinkakoa da eta ez jarraitua, nahiz eta osasun etxea Queiles ibaia lurpetik doan aldetik hurbil dagoenez, bere historiako une batzuetan, saguak noizbehinka agertu izan diren eraikinaren inguruetan. Gainera, enpresa espezializatu baten

eskutik, prebentzio- eta kontrol-neurriak aplikatuz jarduten ari da. Kontrol-neurriak aplikatzen dituen enpresa Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko (NOPLOI) tratamendu bioziden enpresen erregistroan inskribatuta dago; izan ere, erregistro horrek bermatzen du enpresek badauzkatela prestakuntza duten langileak eta izurriteak kontrolatzeko programa eraginkorrak garatzeko ezinbestekoak diren prozedurak, eta, behar denean, produktu biozida baimenduak aplikatzen dituztela.

Osasun Departamentuaren ustez, gaixoei eta herritarrei higie- eta osasun-parametroetan eman al dakieke arreta, saguak daudela egiaztatu den osasun-instalazio batzuetan?

Arestian deskribatutako egoerak ez du eragozten gaixoen eta, oro har, herritarren arreta gartztea, parametro higieniko egoki batzuen barruan, egunero garbitzen baitira instalazioak. Sagu presentzia detektatu den unean, izurriteak kontrolatzeko programa bat aplikatzeko eskatu zaio horretarako baimenduta dagoen zerbitzu-enpresa bati. Programa hori aplikatzen da behar diren arreta-neurriak hartuz erabiltzaileen eta osasun etxeko langileen segurtasuna bermatzeko, bera garatzen diren bitartean.

Departamentuak zer neurri hartu du saguak desagerrarazteko? Egoeraren jarraipenik eginen al da?

Errutinaz eta prebentzioa egiteko asmoz, izurriteen kontrolerako jarduketa batzuk egiten ditu enpresa espezializatu batek, bai Tuter Mendebaldeko osasun etxean, bai Osasun Mentaleko Zentroan zein Tuterako Osasun Barrutiko gainerako osasun zentroetan ere, Reina Sofía Ospitalea barne.

Osasun etxe batean saguak agertzeko gertakari puntual baten aurrean, lehenbizi Barrutiko Zerbitzu Orokorren Atalari eta izurriteen kontroler-

rako enpresari ohartarazten zaie. Kasu honetan, enpresak ekinaldi bereziak egin ditu aurtengo urrian eta azaroan, zeren eta saguen kontrolak esku-hartzeak errepikatzea eskatzen baitu, eraginkortasuna bermatzeko.

Aplikaturako programak diagnosi-fase bat badauka, eta horren barnean dago saguen presentzia errazten duten faktoreak identifikatzea. Ondoren, behar diren prebentzio- edo/eta kontrol-prozesuak aplikatzen dira organismo kaltegarrien sarrera eta ugaltzea saihesteko osasun- eta ingurumen-baldintzak lortze aldera, hartara osasunaren eta ingurumenaren arloko arriskuak ahal den guztian gutxituz.

Ondoren, aplikaturako programaren emaitzak, haien betetze-maila eta egindako jarduketan ondoren sagurik baden ebaluatuko dira, deuseztatzearen eraginkortasuna baloratzeko eta erabakitzeak aplikaturako neurri zuzentzaile bereziak aplikatzen jarraitu behar den edo neurri horiek aplikatzeari utzi behar zaion.

Udalarekin harremanetan jarri al zarete aferaz informatzeko?

Behin enpresa espezializatuaren diagnostikoa aztertuta eta ikusita saguen presentzia dela-eta egin beharreko esku-hartze integralak eraikinaren perimetroan ere esku hartzea eskatzen duela, enpresa espezializatuak gomendatu zuen Tuterako Udalarari informatzea, zentroaren inguruetan behar ziren jarduketak egin zitzaizkion.

Hori dela eta, Barrutiko Zerbitzu Orokorretako Atalari Udalarari informatu zion, behar ziren neurriak har zitzaizkion, bere eskumenen barruan, esku-hartzea orokorra izan zedin, eraikinaren barruko aldean zein kanpoko aldean.

Tuterako Udalarari horri buruz galdetuta, informatu digute kasu hauetarako azpikontrataturako enpresari ohartarazi zitzaiola, eta hark inguruetan saguak deuseztatzeari ekin ziola.

Zentro horietako osasun arloko profesionalen informazioari emanen al zaie?

Tuterako Osasun Barrutiko Gerentzia Gayarre osasun etxeko zuzendaritza-taldearekin eta enpresa espezializatuarekin bildu zen, egoera aztertze epe laburrean eta epe ertainean hartu beharreko neurriak erabakitzeke.

Erabiltzaileei eta gaixoei informazioari emanen al zaie?

Eragin-gunea kasu isolatu eta puntual bat denez, berehalako konponbide kontrolatu bat duena, ez da beharrezkotzat jo osasun etxeko erabiltzaileei informatzea.

Departamentuak zer protokolo dauka gisa horretako aferetarako?

Tuterako Barrutian kontraturaturako enpresak aplikaturako protokoloa edo izurriteen kontrolerako plan integratua arestian azalduko da. Zehazki, bi motatako jarduketak garatzen dira.

1. Enpresa espezializatu batekin, zeina NOPLORen enpresen erregistroan inskribatuta baitago, kontraturaturako aldizkako azterketak eta errutinazko jarduketak.

2. Zentroetako arduradunek eskatuta egiten diren jarduketa bereziak, izurriteekin lotutako gorabeherak antzematen direnean.

Esku-hartze guztien hasiera egoerari buruzko diagnostiko-fase bat da, zeinean izurriteen balizko presentzia zehazten baita, agentea edo agenteak identifikatzen baitira eta haien kokatu eta haien eragimen-maila zehazten baita. Ondoren haien jatorria eta agerpenerako, banaketarako eta balizko ugaltzerako lagungarri diren faktoreak zehazten dira.

Esku-hartze fasean, hura beharrezkoa denean, neurri zuzentzaileak aplikatzen dira, egindako diagnostikoaren emaitza gisa bidezkozat jotzen direnean. Egiturazko elementuei buruzko neurriak ere biltzen dira, bai eta izurriteen eragin-gune gisa jardun dezaketen tokien deuseztatzeke eta sarbidea eta elikatzea eragoztekeko oztopo fisikoak aplikatzeko neurriak ere.

Ondoren, eraikinaren baldintza higieniko, sanitario eta ingurumenekoak hobetzeko jarduten da, eta, beharrezkoa denean, izurriteak kontrolatzeko baimendutako produktu biozida berariazkoak aplikatzen dira. Esku-hartzeak egiten dira behar diren prebentzio-neurriak ezarriz, laguntza-jardueran trabarik ez egiteke eta erabiltzaileenganako eta zentroko langileenganako balizko afekzio guztiak saihesteko.

Jarduketak amaituta, enpresak zentroko arduradunei eta Barrutiko Zerbitzu Orokorretako Atalari egindako zerbitzuaren ziurtagiria ematen diete; horren barnean, diagnostikoa, aplikaturako neurriak deskribapena, haien eraginkortasunaren ebaluazioa, erabilitako produktuen segurtasun-epeak eta balizko gorabeherari buruzko informazioa egonen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko azaroaren 20an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Nafarroako sare publikoaren kalitatearen aldeko ituna berritzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako sare publikoaren kalitatearen aldeko ituna berritzeari buruzkoa. Galdera 2017ko azaroaren 3ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioak 9-17/PES/-00231 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentuak bilerak izan ditu, eztabaidak egin ditu eta sindikatu-erakundeen proposamenak jaso ditu sare publikoaren kalitate-

aren aldeko ituna dela eta, honako egutegi honi jarraituz:

- Prozeduraren hasiera: Martxoaren 16an.
- Proposamenak helaraztea (posta elektronikoz): Martxoaren 24ane eta apirilaren 7an.
- Proposamenak aurkeztu eta eztabaidatzea: Martxoaren 28an, apirilaren 11n, maiatzaren 5ean eta maiatzaren 31n.
- Administrazioaren proposamenaren zirriborroa helaraztea (posta elektronikoz): Azaroak 6
- Ituna negoziatzen hasia: Azaroak 10

Oraindik ere negoziazio-fasean gaudenez, goizegi da une honetan ondorioak edo akordioak aurreratzeko.

Iruñean, 2017ko azaroaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko le-duna: María Solana Arana

Galdera, Nafarroako eskola mapan eginen diren aldaketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako eskola mapan eginen diren aldaketei buruzkoa. Galdera 2017ko azaroaren 3ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak eginiko 9-17/PES-00232 idatzizko galdera dela eta, hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak ematen duen informazioa:

Martxoaren 13ko 69/1995 Foru Dekretuak, hura dela-eta foru dekretu bidez egin diren gaurkotzeak eta Nafarroako Gobernuaren erabakiek osatzen dute Nafarroako Foru Komunitateko zentroen sarea antolatzeako arauak emateko oinarri arautzailea.

Hezkuntza sistemaren eta haren zentroen sarearen etengabeko bilakaerak berekin dakar hura berrikusi behar izatea eta Nafarroako erreali-

tatearen arabera eguneratu eta gaurkotzea. Horretarako, lantalde bat osatu da, Hezkuntza Departamentuko Azpiegituren Zerbitzuko eta Hezkuntza Ikuskapeneko Zerbitzuko teknikariek. Lantalde horri esleitutako egitekoa da ikastetxeak berrantolatzeako eta herrien atxikipenerako proposamen bat egitea, errealitateari eta gaur egungo beharrezari begiratuta.

Lan-egutegiaren arabera, honako hauek aurreikusten dira:

Lehen: 2017-18 ikasturtearen lehenengo erdia amaitu baino lehen azterketa lanak eta lehenengo zirriborroak aurkeztea.

Bigarrena: Lantalde teknikoaren proposamena aztertuta, kontsultak egitea proposatutako muntako aldaketek ukitzen dituzten eskola-erkidegoekin eta udal arduradunekin. Aurreikusita dago 2017-18 ikasturtea amaitu baino lehen lan-planaren bigarren fasea amaituta egotea.

Hirugarrena: Foru dekretu bidez, araudi berria onestea, halako moduz non "eskola mapa" 2019-20 ikasturtearen aurrematrikulazio-kanpainan aplikatu ahalko baita.

Iruñean, 2017ko azaroaren 20an.

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

Galdera, ospitaleetako biribilgunetik Nafarroako Ospitaleko sarrera nagusira bitarteko seinaleztapen horizontalari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, ospitaleetako biribilgunetik Nafarroako Ospitaleko sarrera nagusira bitarteko seinaleztapen horizontalari buruzkoa. Galdera 2017ko azaroaren 7ko 135. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak 9-17/PES-00234 galdera egin du, Ospitaleetako biribilgunetik Nafarroako Ospitaleko sarrera nagusira bitarteko seinaleztapen horizontalari buruz. Honako hau da Garapen Ekonomikorako kontseilariak informatu beharrekoa:

Galdera:

Honako hau jakin nahi dut ospitaleetako biribilgunetik Nafarroako Ospitaleko sarrera nagusira bitarteko seinaleztapen horizontalari dagokionez:

– Ea ezer egiteko asmorik dagoen (kasua bali-tz, Iruñeko Udalarekin koordinatuta) gutxienez ere tarte horretako seinaleztapen horizontala berri-tzeko.

Erantzuna:

Galderan aipatzen den errepide-tartea ez dago Nafarroako Errepideen sarean. Hiri-bide bat da eta, horrenbestez, hura konpontzea Iruñeko Udalaren egitekoa da. Horrenbestez, bere eskumene-tatik kanpo dagoenez, departamentu honek ez du inongo jarduketarik aurreikusi tarte horren seinaleztapen horizontala berritzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaiola

Galdera, Nafarroako 2018rako aurrekontuen proiektua Nafarroako Parla-mentuan urriaren 31rainoko epea baino lehen ez erregistratzeko zioei eta arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artiku-luan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ainhoa Unzu Gárate andreak egindako galde-aren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarro-ako 2018rako aurrekontuen proiektua Nafarroako Parlamentuan urriaren 31rainoko epea baino lehen ez erregistratzeko zioei eta arrazoiei buruz-koa. Galdera 2017ko azaroaren 3ko 134. Nafarro-ako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamen-tarioko Ainhoa Unzu Gárate andreak idatziz eran-tzuteko galdera egin du (9-17/PES-000235) “Nafarroako 2018rako aurrekontuen aurreproiek-tua” Nafarroako Parlamentuan urriaren 31rainoko epea baino lehen ez erregistratzeko zio eta arra-zoiei buruz. Galdera hori 2017ko urriaren 26ko 4259 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ema-ten dion informazioa:

Aurrekontua egiteko, diru-sarreretatik abiatu beharra dago; hala eta guztiz ere, Nafarroako zerga sistemaren egutegia den bezalakoa delako, irailan aurrera samar gauden arte ezin da haiei buruzko aurreikuspen fidagarriak eduki. Horixe da beti aurrekontu bat prestatzeko denborak beti doido erabiltzeko izan den arrazoia; bestela ere, Parlamentuko gehiengoaren parte-hartzea eta elkarrengana behar da prestaketa horretarako.

Horixe izan da, halaber, aurtan denborak hain estuak izatearen arrazoia, eta horregatik gertatu da zazpi eguneko atzerapena aurreko urtearekiko.

Nolanahi ere, Parlamentuko izapidetzerako egutegia zein den badakigunez, aurreikusi dugu aurrekontuak garaiz eta formaz onetsiko direla abenduaren 31 baino lehen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, kontratazio publikoaren protokoloei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kontratazio publikoaren protokoloei buruzkoa. Galdera 2017ko azaroaren 3ko 134. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioko parlamentari Mónica Doménech Linde andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-000236) kontratazio publikoaren protokoloei buruz. Galdera hori 2017ko urriaren 11ko 4012 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuo Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen menpean dauden entitateek lizitatzen dituzten kontratuen baldintza-pleguetan ezin konta ahala klausula sozial daitezke. Horiek preskripzio tekniko moduan egon daitezke formulatuta, edo kaudimen-irizpide gisa, edo kontratuaren esleipen-irizpide gisa, edo haren betetzerako baldintza gisa edo berdinketa ebazteko irizpide gisa. Kontratuei buruzko Foru Legeak 49. eta 51. artikuluetan arautzen du klausula horien erabilpena, eta ezinbesteko gertatzen da erabilitako klausulak lotura izatea kontratuaren xedearekin.

Kontratuei buruzko Foru Legearen 10., 11. eta 12. artikuluetan, kontratistei buruzkoetan, ez da inongo debeku espresik jasotzen munduko herrialde jakinen batetik datozen enpresekin kontratatzeari buruz.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen Euskarabideak emandako diru-laguntzei buruzko daturik ez egoteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen Euskarabideak emandako diru-laguntzei buruzko daturik ez egoteari buruzkoa. Galdera 2017ko azaroaren 7ko 135. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak idatzizko galdera egin du (9-17/PES-00237). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Euskarabideak, berez horrela behar baitu, legea betez eta errutinazko kudeaketa administratiborako prozeduran hala ezarrita dagoelako, Diru-laguntzei buruzko Datu Base Nazionalari komunikatzen dizkio egiten dituen deialdiak, eta, hartara, Euskarabideak egindako diru-laguntza deialdi guztiei buruzko informazio hori Diru-laguntzei buruzko Datu Base Nazionalen dago, behe-

ragoko irudian (2. irudia) ikus daitekeen bezala; horrenbestez, informazio faltarik ez dago.

Informazio hori lortzea erraza da: Diru-laguntzei buruzko Datu Base Nazionalen deialdien orrialdera sartu (1. irudia) eta dagokion iragazkia pasa (2. irudia): Nafarroako Foru Komunitatea hautatu, autonomia erkidego gisa; eta Euskarabidea, departamentu gisa.

Bestalde, Diru-laguntzei buruzko Datu Base Nazionalen indarrean dauden diru-laguntzei buruzko informazioa ematen da soilik; zehazki, 2017ko irailaren 1etik aurrera argitaratutakoei buruzkoa (3. irudia).

1. irudia. Googlen Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari buruzko bilaketa egin.

2. irudia. Euskarabideak deitutako diru-laguntzak iragazi.

3. irudia. Indarrean dauden diru-laguntzei buruzko informazio orokorra.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko azaroaren 28an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde



Imagen 1. Búsqueda de Google de las convocatorias de la Base de Datos Nacional de Subvenciones.

The screenshot shows the 'de Publicidad de Subvenciones' website interface. At the top, there are navigation tabs: 'Hastapeneko', 'Abisuk', 'Alerten harpidetza', 'Diru-laguntzen eta laguntzen emakida', 'Estatuko laguntzen emakida', and 'Arasu-hauste oso larriak eta isunak'. Below this, there's a section for 'Deialdi bilaketa' (Search for calls) with a sub-section 'Inongo bilaketa-inzipiderik ez bada ezartzen, administrazio publiko honen deialdi guztiak erakutsiko dira.' (If no search criteria is set, all calls from this public administration will be shown).

The main search form includes several filters:

- Deialdiaren izenburua** (Call title): Filtered to 'Euskarabidea'.
- SNPS erregistroaren data** (SNPS registration date): Fields for 'Noiztik:' and 'noiz arte:'.
- Heiburua** (Priority): Set to 'Hartu aukera bat'.
- Eskualde antolaketak** (Regional organization): Filtered to 'ES - ESPAÑA'.
- Xedeko onuradun mota** (Beneficiary type): Filtered to 'GRAN EMPRESA'.
- Erakundea** (Entity): Filtered to 'EUSKARABIDEA / INSTITUTO NA...'.
- Onuradunaren ekonomia jarduerak** (Beneficiary economic activity): Filtered to 'AGRICULTURA, GANADERÍA, SILVIC...'.
- ID BONS** (BB number): Filtered to '369026'.

At the bottom of the search form, there are buttons for 'Prozesatu kontsulta' and 'Datuk garbitu'.

Below the search form, there's a section 'Deialdi (bilaketaren emaitza)' (Calls (search results)) with a table of results. The table has columns: 'Administrazio', 'Saila', 'Erakundea', 'Izen-emate data', 'Deialdiaren izenburua', 'BB Auzaitzailea', and 'ID BONS'. The results are filtered to show only calls from 'COMUNIDAD FORAL DE EUSKARABIDEA / INST'.

Imagen 2. Filtrado de las subvenciones convocadas por Euskarabidea.

The screenshot shows the 'Sistema Nacional de Publicidad de Subvenciones' website. At the top, there are navigation tabs: 'Hastapeneko', 'Abisuk', 'Alerten harpidetza', 'Diru-laguntzen eta laguntzen emakida', 'Estatuko laguntzen emakida', and 'Arasu-hauste oso larriak eta isunak'. Below this, there's a section for 'Azken deiak erregistratuta' (Latest registered calls) with a sub-section '2016an emandako lizentziadunen organeko Portal agerian informazio hori, estatuko sektore publikoaren kasuan, berriz ere biltzen 2014 hontitu.' (This information, in the case of the public sector, is being updated again from 2014).

The main search form includes several filters:

- Administrazio** (Administration): Filtered to 'REGIÓN DE MURCIA'.
- Saila** (Department): Filtered to 'CONSEJERÍA DE SALUD'.
- Erakundea** (Entity): Filtered to 'CONSEJERÍA DE SALUD'.
- Izen-emate data** (Registration date): Filtered to '17/11/2017'.
- Deialdiaren izenburua** (Call title): Filtered to 'ACUERDO DE 9 DE NOVIEMBRE DE'.
- BB Auzaitzailea** (BB number): Filtered to '371492'.
- ID BONS** (BB number): Filtered to '371492'.

At the bottom of the search form, there are buttons for 'Orrialdea' and 'Bistaraten 1 - 50 gutzira 9.999'.

Below the search form, there's a section 'Taula hau iragan 9.999 sisteman erregistratuta deiak erakusten ditu. Deiak guztiak sartzeko aukeratu behar du "Deiak" fitxa.' (This table shows calls registered in the system 9,999. You must select "Deiak" to enter all calls).

Below this, there are four panels:

- Albisteak** (News): 'Nota informativa actividad Junio 2017' and 'Nota informativa actividad 2016'.
- Araudia** (Regulation): 'Ley 38/2003 General de Subvenciones - Texto consolidado' and 'Ley 19/2013 de 9 de diciembre de transparencia, acceso a la información pública y al régimen de archivos administrativos'.
- Estatuko laguntzen araudia** (Regulation of state subsidies): 'Reglamento (UE) 1407/2013 DE MNIMS' and 'Reglamento (UE) 1408/2013 DE MNIMS AGRÍCOLA'.
- Estekak** (Links): 'Portal de Transparencia', 'Crecia', and 'Eslovaquia'.

At the bottom, there's a footer with 'Inagarriritasuna', 'Lege oharra SNPS', 'Azken eguneratzea 18/11/2017', and logos for 'W3C', 'W3C', and 'W3C'.

Imagen 3. Información general de las subvenciones en vigor.

Galdera, Sarrigurengo Joakin Lizarraga ikastexe publikoko kanpo-errotulazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galdera, Sarrigurengo Joakin Lizarraga ikastexe publikoko kanpo-errotulazioari buruzkoa. Galdera 2017ko azaroaren 7ko 135. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari (UPN) atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00238). Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Sarrigurengo D ereduko "Joakin Lizarraga" Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoaren kanpoko aldeko errotulazioa dela-eta eginda-

ko galderei dagokienez, esan beharra dago Hezkuntza Departamentuak 2016-2017 ikasturtean zehar jarri zuela ikastetxeko fatxadaren ikastetxearen izendapen ofiziala jasotzen zuen identifikazio-errotulua. Errotulazio hori ele bitan dago, araudiak horri buruz ezarritakoari jarraituz.

Kanpoko fatxadaren apaindura ez da ikastetxearen errotulazioaren zati bat, eta ez zuen Hezkuntza Departamentuak egin.

Nafarroako Gobernuaren 2016ko uztailaren 5eko erabakian, "Hermanas Uriz Pi" eta "Joakin Lizarraga" ikastetxeak sortzeari buruzkoan, izenak horrelaxe agertzen dira; hori dela eta, errotulazio ofizial guztiak, bai eta idazkiek ere, izen hauxe agertu behar dute: "Joakin Lizarraga". Ez dakigu zergatik eman zaion beste izenen bat idazkiren batean.

Iruñean, 2017ko abenduaren 1ean.

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ospitaleetan edo osasun etxeetan medikuaren aginduz ama-esnearen analisiak edo kulti-boak egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Domenech Linde andreak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ospitaleetan edo osasun etxeetan medikuaren aginduz ama-esnearen analisiak edo kultiboak egiteari buruzkoa. Galdera 2017ko azaroaren 7ko 135. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mónica Domenech Linde andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-17/PES-00239), informazioa nahi baitu "O-NOZen ospitaleetan edo osasun etxeetan medikuaren aginduz ama-esnearen analisiak edo kultiboak egiteari buruz". Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Osasunbidearen ospitale edo osasun etxeren batean egiten al da medikuak agindutako ama-esnearen analisisirik edo kultiborik?

Bai, egiten da, medikuak aginduta, O-NOZen hiru ospitale-zentroetan, bereziki hasieran eman-dako tratamenduarekin sendatzen ez den infekzio larriren baten aztarnarik badago; emakumeak lehen aukerako antibiotikoak hartzerik ez badu, edo errepikatutako mastitis bat baldin bada.

Ama-esnearen kultiborik eta antibiogramarik egiten ez bada, nola ezartzen da berariazko tratamendu antibiotikoa?

Aukera enpirikoko tratamendu antibiotikoa, mastitisa izan eta hura behar duten gaixoen kasuan, ezarritako gomendio zientifikoei eta protokolei jarraituz egiten da. Lehen aukera estafiloko aureusaren aurkako bat da, zeren horixe baita zabalduen dagoen germena. Kloxacilina da

erreferentziako antibiotikoa, eta horrekin sendatzen dira prozesu horietatik gehienak.

Eboluzioa txarra den kasuetan erabiliko da antibiogramarekin egindako kultiboa.

Bularreko ekografiarik egiten al da medikuaren aginduz, mastitisaren bilakaera okerrekoa den kasuetan?

Medikuak aginduta egiten dira bularreko ekografiak O-NOZen ospitale-zentroetan, mastitisa eboluzio txarra duenean, hanpadurak edo minak irauteko aztarnekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko azaroaren 23an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Galdera, Artikako ikasleak Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan eskolatzeko erreferentzia-ikastetxeak ezartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galdera, Artikako ikasleak Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan eskolatzeko erreferentzia-ikastetxeak ezartzeari buruzkoa. Galdera 2017ko azaroaren 7ko 135. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioak 9-17/PES/-00240 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Martxoaren 13ko 69/1995 Foru Dekretuak, Foru Komunitateko ikastetxeen sarea berrantolatze arauak ematen dituenak, ezartzen du Antsoingo udalerrria dela herri horretako "Ezkaba" ikastetxe publikoari atxikita dagoen bakarra.

Arau berean, Berriobeitiko udalerrria Berriozarko "Mendialdea" ikastetxe publikoari atxikitzen zaio. Hala eta guztiz ere, ezartzen da udalerriko herri batzuk beste ikastetxe batzuei atxiki ahalko zaizkiela. Izan ere, Gobernuaren 2017ko ekainaren 18ko erabakian, zeinaren bidez Iruñeko "Doña Mayor" HLHIPa sortzen baita, Artikako ikasleak ikastetxe horri atxiki zitzaizkion.

Historikoki, Artika "herriko" ikasleak Antsoingo "Ezkaba" ikastetxe publikoan matrikulatu izan dira. 2009-2010 ikasturtera arte, onartu izan da Artika Berrian bizilekua zuten ikasleak (eraiki berria den urbanizazio bat da, edukiera handiko errepide batek Artika "herriko" fisikoki bereizita dagoena) Artika herriko ikasleentzat antolatutako garraioa erabiltzea. Garraio hori erabiltzeko eskubidea 2010-2011 ikasturtetik aurrera mugatu zen, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiaren 2010eko otsailaren 4ko gutun baten bitartez. Gutuna bi ikastetxe publiko horietako zuzendariei, ordura arte Antsoingo "Ezkaba" eta Iruñeko "Doña Mayor de Navarra" ikastetxe publikoetan matrikulatutako ikasleei eta eskolaratu berritako haien anai-arrebei bidali zitzaien.

Gutun horretan erabateko argitasunez jakinarazten da “ikastetxe horietan haur hezkuntzako bigarren zikloan sartu berritako ikasleek ez dutela garraio- eta jantoki-zerbitzurik izanen 2010/2011 ikasturtetik aurrera” (Artika Berria auzoan bizilekua zuten ikasleei erreferentzia eginez).

Hala eta guztiz ere, hurrengo ikasturteetan Hezkuntza Departamentuak ez zuen gutxitu eskola-garraiorako ibilgailuen edukiera, eta, horrenbestez, ikasle asko ikastetxeetara joan ahal izan ziren ez garraiorako, ez jantokirako eskubiderik izan gabe, leku hutsez baliatuta.

Egoera hori antolatzeko eta konparaziozko bidegabekeriarik ez sortzeko, oro har, Iruñeko eta Iruñerriko ikasleen eskolaratzean, Hezkuntza Departamentuak, bi ikastetxe horietako hezkuntza-erkidegoarekin 2015eko irailean egindako bilera batean, jakinarazi zuen leku hutsak baliatzearen bidezko garraioa mantenduko zuela jada matrikulatuta zeuden ikasleentzat, 2015-2016 ikasturtean garraioaren erabiltzaile zirenentzat (lehen hezkuntzako lehen mailatik seigarren mailara), eskolaratzea bukatu bitartean.

Gaur egun, Hezkuntza Departamentuak hartutako konpromisoa da 2010ko zuzendari nagusiaren ofizioak aipatzen dituen eskubidedun ikasleen garraioari eustea, leku hutsez baliatuz, 2015-2016 ikasturteko haur hezkuntzako lehen mailan matrikulatuta dauden ikasleentzat, haien eskolaratzea amaitu arte, betiere ikasle onuradunen garraiorako ibilgailuen tamaina egokituz.

Bestetik, Hezkuntza Departamentua lan egiten ari da “eskola-mapa” deitutakoa aldatzeko. Eskola-mapak, izan ere, Nafarroako herriak zein ikastetxeri atxikiko zaizkion zehaztuko du, martxoaren 13ko 69/1995 Foru Dekretuan eta haren geroko aldaketetan ezarritako biztanleria-datuak eta datu demografikoak eguneratuz. Dokumentu hori gidatuko duten printzipioen artean dago herriak erreferentziako zentro horietatik hurbil egotea; izan ere, hori kontuan hartuko da Artikako ikasleen kasu zehatzean, eta gaur egun ere aztertzen ari da.

Iruñean, 2017ko azaroaren 23an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuoko elduna: María Solana Arana

Galdera, zenbait delitu direla-eta atxilotutako pertsonak jasotzen zituzten gizarte-laguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Domenech Linde andreak egindako galdera, zenbait delitu direla-eta atxilotutako pertsonak jasotzen zituzten gizarte-laguntzei buruzkoa. Galdera 2017ko azaroaren 17ko 141. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari Mónica Doménech Linde andreak galdera egin du zenbait delitu dela-eta atxilotutako pertsonak jasotzen zituzten gizarte-laguntzei buruz (9-17/PES-00241). Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako kontseilariak informatzeko duena:

– Adieraziko al diguzu ea atxilotutako beste sei pertsonak etxebizitza sozial batean bizi ote ziren, errenta bermatua jasotzeaz gain?

Zehatz al dezakezu ea etxebizitza sozialetan bizi ziren ala ez, noiztik bizi ziren eta familia-nukleo berekoak ziren ala ez?

Galderan aipatzen diren gainerako sei atxilotuetatik, bi etxebizitza sozialetan bizi ziren. Bat, aurreko legegintzalditik: 2013-10-1. Bost kidek osatutako familia-unitatea, helduen bikote bat eta hiru adingabe; beste pertsona Nasuvinsaren jabetzakoa den alokairuko babes ofizialeko etxebizitza batean dago. Etxebizitza hura etxebizitzaren zentsuaren bitartez eskuratu zuen, eta 2015-11-1ean sinatu zen kontratua. Familia-unitatea bost kidek osatzen dute: bi heldu eta hiru adingabe.

Adieraziko al diguzu ea 6 pertsona horietako bakoitzak noiztik jasotzen zuen errenta bermatua? Zehatz al dezakezu ea etxebizitza sozialetan bizi

ziren ala ez, noiztik bizi ziren eta familia-nukleo berekoak ziren ala ez?

– Atxilotutako hamar pertsona horietako bakoitzak jasotako gizarte-laguntzen berri xehakaturik ematea eskatzen dut. Eta adieraz dakigula jasotako gizarte-laguntzak itzul ditzaten eskatu ote zaien, zer baldintzatan eta noiz.

Eskatzen den informazio zehatza emateko, familia-unitate bakoitza zenbaki batekin identifikatu dugu. Bere garaietan atxilotu bazituzten ere, gaur egun espetxean ez dauden pertsonak dira:

1. pertsona

Familia-unitatea: Heldu batek eta hiru seme-alabek osatua.

Prestazio ekonomikoak: Gaur egun ez du batera jasotzen. Eskari berri baten ebatzpenaren zain dago.

2017ko espedienteak, 2017ko irailaren 6ko eskaria, zeina ezetsi baita datuak ezkutazeagatik.

2016ko espedienteak, gizarteratze-errentari buruzkoa (RIS), 2016ko urriaren 1etik 2017ko irailaren 30era doan aldirako.

2015eko espedienteak, gizarteratze-errentari buruzkoa, 2015eko urritik 2016ko irailera.

2015eko espedienteak, gizarteratze-errentari buruzkoa, 2015eko apiriletik irailera.

Aurrez, gizarteratze-errenta 2012ko irailetik 2014ko irailera (2014ko martxoan izan ezik, modu jarraituan).

Zenbatekoak familia-unitateari dagozkionak dira, urte hauetan guztietan kide kopuruari buruz izan diren araudien arabera.

Etxebizitza: Aipatu den bezala, joan den legegintzalditik babes ofizialeko etxebizitza batean dagoen familia unitateetako bat da hau.

2. pertsona

Familia-unitatea: heldu batek eta adingabe batek osatzen dute.

Prestazio ekonomikoak:

Gizarteratze-errentaren 2017ko espedienteak, 2017ko apirilaren 1etik 2018ko martxoaren 31ra.

Gizarteratze-errenta eskuratu du 2016ko apirilaren 1etik 2017ko martxoaren 31ra.

Zenbatekoak familia-unitateari dagozkionak dira, urte hauetan guztietan kide kopuruari buruz izan diren araudien arabera.

3. pertsona

Familia-unitatea: heldu bat.

Prestazio ekonomikoak:

Gizarteratze-errentaren 2017ko espedienteak, 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra. Baja eman zaio, informazioa ezkutazeagatik.

Zenbatekoak familia-unitateari dagozkionak dira, urte hauetan guztietan kide kopuruari buruz izan diren araudien arabera.

4. pertsona

Familia-unitatea: heldu batek eta adingabe batek osatua.

Prestazio ekonomikoak: Ez du gizarteratze-errentarik jasotzen

Gizarteratze-errentaren 2017ko espedienteak, ukatua bizikidetzaren egoerari buruzko datuak ezkutazeagatik.

Gizarteratze-errentaren 2016ko espedienteak, 2016ko azaroaren 1etik 2017ko urriaren 31ra.

2008ko apirilaren 1etik 2011ko martxoaren 31ra oinarritzko errenta jaso du, 2008ko uztailean eta abuztuan eta 2010eko irailetik 2011ko apirilera bitartean izan ezik.

Gizarteratze errenta jaso du 2012ko azaroaren 1etik 2016ko urriaren 31ra.

Zenbatekoak familia-unitateari dagozkionak dira, urte hauetan guztietan kide kopuruari buruz izan diren araudien arabera.

5. pertsona

Familia-unitatea. bi helduk eta hiru adingabek osatua.

Prestazio ekonomikoak:

Esp. 2017ko gizarteratze-errenta, 2017ko ekainaren 1etik 2018ko maiatzaren 31ra. Prestazioa kautelaz eten zen, baina alegazioak aurkeztuta, eta haiekin batera oinarritzko gizarte zerbitzuaren txosten sozio-familiarra; azkenean, prestazioa berrezarri da, araudia betetzen baita.

Gizarteratze-errenta jaso du 2013ko martxoaren 1etik 2017ko apirilaren 31ra, 2013ko irailaren 1etik 2017ko apirilaren 31ra, 2013ko irailaren 1etik 2017ko maiatzaren 31a, honako eten hauekin. 2014ko uztailetik urrira eta 2015eko maiatzean.

Gizarteratze-errenta izan dute 2013ko urtarrilaren 1etik 2017ko maiatzaren 31a, honako eten hauekin. 2014ko uztailetik urrira eta 2015eko maiatzean.

Zenbatekoak familia-unitateari dagozkionak dira, urte hauetan guztietan kide kopuruari buruz izan diren araudien arabera.

Etxebizitza: Aipatu den bezala, alokairuko babes ofizialeko etxebizitza batean dagoen familia unitateetako bat da hau. Familia-unitatea etxebizitzaren zentsuaren bitartez eskuratu zuen etxebizitza hori.

6. pertsona

Familia-unitatea. Familia-unitatea bost pertsonen osatzen dute, horietako bat adingabea.

Prestazio ekonomikoak:

Gizarteratze-errentaren 2017ko espedientea, 2017ko otsailaren 1etik 2018ko urtarrilaren 31ra. Kautelaz eten zen errenta hori. Eteteari buruzko alegazioak aurkeztu direnez eta egoera eta balorazio berriak beste ebazpen bat ekarri dutenez, familia-unitateak errenta jasotzen jarraitzen du, baina kopuru txikiagokoa.

2010eko martxotik 2011ko abuztura eta 2011ko urritik 2012ko martxora oinarrizko errenta jaso du.

Gizarteratze-errenta jaso du 2013ko otsailetik 2016ko irailera, baina 2017ko uztailera arte emanda zuen. Izan ere, ikuskatze baten ondoren, prestazioa bertan behera utzi zen, datuak ezkutatzegatik, eta 917,28 euro itzultzeko eskatu zitzaion; hain zuzen ere, 2016ko azaroari zegokion kopurua.

Aurreko sei pertsonen gainera –horien egoerari buruz jada informatu dugu–, beste lau aipatu behar ditugu; oraingoan ere, zenbakiekin izendatuko ditugu. Espetxean daudenez, ez dute gizarteratze-errentarik jasotzen.

7. pertsona

Familia-unitatea: Familia-unitatea bi helduk eta adingabe batek osatzen dute.

Prestazio ekonomikoak: Ez du jasotzen.

Etxebizitza: Gainerako familia-kideek adingabeak dituzte beren kargura, eta etxebizitzaren foru funtseko etxebizitza batean daude.

8. pertsona

Familia-unitatea. Bost pertsonen osatzen dute, horietako hiru adingabeak.

Prestazio ekonomikoak: Ez du jasotzen, espetxean dagoelako.

Familia-unitateak gizarteratze-errenta edo oinarrizko errenta jaso dute 2011ko apirilaren 1etik 2017ko uztailaren 31ra, 2014ko apirilean eta maiatzean eta 2015eko ekainean eta uztailan izan ezik; azken aldi horretan, errenta ezetsi zen datuak ezkutatzegatik.

9. pertsona

Familia-unitatea: 5 pertsona, horietako bat adingabea.

Prestazio ekonomikoak: Ez du gizarteratze-errentarik jasotzen, espetxean dagoelako.

Prestazio ekonomikoak, gaurko familia-unitate-tik kanpo jasotakoak:

2016 espedientea, gizarteratze-errentari buruzkoa, 2016ko urtarrilaren 1etik 2016ko abenduaren 31ra doan aldirako. Ikuskatzailearen txostenaren ondotik (Foruzaingoaren laguntzarekin), prestazioa bertan behera utzi zen azaroko eta abenduko eraginekin; ikuskatzean egiaztatu zen informazioa ezkutatzen zuela. Azken batean, gizarteratze-errenta 2016ko urtariletik urrira jaso zuen.

2011ko espedientea, oinarrizko errentari buruzkoa: 2011ko maiatzetik urrira.

2012ko espedientea, gizarteratze errentari buruzkoa: 2012ko otsailetik uztailera.

2013ko espedientea, gizarteratze-errentari buruzkoa: 2013ko otsailetik uztailera.

Zenbatekoak familia-unitateari dagozkionak dira, urte hauetan guztietan kide kopuruari buruz izan diren araudien arabera.

10. pertsona

Familia-unitatea. bi helduk eta bi adingabek osatzen dute.

Prestazio ekonomikoak: Ez du gizarteratze-errentarik jasotzen, espetxean dagoelako.

2017ko espedientea, gizarteratze errentari buruzkoa: 2017ko apirilaren 1etik 2018ko martxoaren 31ra, orduan eten baita.

Gizarteratze-errenta jaso du 2013ko martxoaren 1etik 2017ko apirilaren 31ra, 2013ko irailan izan ezik.

Zenbatekoak familia-unitateari dagozkionak dira, urte hauetan guztietan kide kopuruari buruz izan diren araudien arabera.

Bestelako informazioak: Familia bakar bat birkokatu egin zen, Tenis Klubaren ondoko lursaileko kokalekutik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2017ko abenduaren 20an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Nafarroako Kutxa Fundazioak euskarari ematen dion erabilera dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galdera, Nafarroako Kutxa Fundazioak euskarari ematen dion erabilera dela-eta Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Galdera 2017ko azaroaren 17ko 141. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatzizko galdera egin du (9-17/PES-00242). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroako Kutxa Banku Fundazioaren estatutuek –Nafarroako Gobernuaren 2014ko ekainaren

27ko erabakiaz eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren 2014ko ekainaren 27ko aginduz onetsi ziren– 1. artikuluan ezartzen duten bezala, Nafarroako Kutxa Banku Fundazioa fundazio pribatu bat da, irabazi asmorik gabekoa, zeina heldu baita Nafarroako Kutxa izaera bereziko Fundazioaren eraldaketatik; haren ondarea modu iraunkorrean lotuta dago estatutu hauetan xehatzen diren interes orokorreko xede instituzionalak beteazekin.

Entitate pribatu batenez, ez zaio aplikatzen euskara administrazio publikoetan erabiltzeko araudia.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2017ko abenduaren 14an.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

